

DONOSTIAKO GAZTEAK,

LANGILLE MAISUEN FESTA, 1832-GARREN URTEKO

ZANPANZART EGUERDIAN.

**Marcha.**

Orañ urte bi etorrigiñan	Gurekiñ dator aita Jošepe
Zalduniote goizean	Agure gordiñ maitea
Donostiara, andre ta gizon	Maisu aditu aspaldikoa
Kantari eta lanean:	Langille paregabea;
Aurten berriro gatoz plazara	Ona Jošepe gizon zintzoa
Zanpanzart bazkal aurrean	Nagusi prestu gurea,
Kanta, soñu eta dantzakiñ	Nekean pizkor, jolasean zar
Pozez umore onean.	Eta festetan gaztea.

Belaun-chingoa.

Zortzi langille maisu, guztiak gazteak
 Eta emazteak,
 Arintzen nekeak,
 Gatoz plaza berrira umore onean,
 Dantzari lanean,
 Kantari nekean:
 Soñubarekin gera alegre dantzatzen
 Ez gera nekatzen,
 Ez ere aspertzen,
 Salto bada gizonak, ta andreak salta,
 Egiñ lana, kanta,
 Ta nekean dantza.

Iru damacho.

Donostiako festara gatoz	Infantachoa zeren dan jayo
Berri onakiñ kantari	Donostiako jendea
Emen lendanaz jakin dirala	Festan egunaz, gabeen festan
Plazan ondo da ageri;	Dago naikeraz betea:
Infanta maitea, jayocho berria	Atsegiñ, zorion, biotz leyaleko
Salbe, ta ongi etorri.	Pozaren eziñ gordea.

Zortzikoa.

Zortzi ofiziotan	Kupelgilleak ditu
Degu gure lana	Zubek serbitzeko,
Atozte lenbiziko	Tonel, barrika, barrill
Dendariagana:	Sulla ta tiñako:
Eramango dezute	Onzi burniz josiak
Beti gauza ona,	Bañubak artzeko
Burutik oñetara	Uztai eta zumeak
Jazteko persona.	Lana egiteko.
Zapatariak ditu	Icharkizayak dauzka
Biziro sendoak	Parol eskukoak,
Bota ederrak merke	Inbutu, kafe onzi,
Eta modakoak:	Olio charroak:
Zapata polit, larru,	Kandelerero, neurriak,
Oyal, sedazkoak,	Platerak, potoak,
Ondo errebitatu	Alanbre sare eta
Eta neurrikoak.	Enzuluzechoak.
Arotzak ugari ta	Perratzalleak bere
Merke dauzka gayak	Ilze ta perretan,
Egiteko apalak	Egitekoa urri
Kuchak eta oyak:	Dauka plaza ontan:
Iškindogiak, mairak,	Bañan beti ugari
Ate, leyo, mayak,	Ordu guztietan
Alki arrnarioak	Mandazai, idizai, ta
Eta arilkayak.	Ostalarietan.

Pazigilleak berak
 Nai duben adiña
 Zarrak adobakitzen
 Badu zer egiña:
 Chokolaterachoa,
 Pertza, zartagiña,
 Pazi, tupi, kaldera
 Eta kalderiña.

Chorrochillea bere
 Arri leunean
 Bururik jaso bage
 Ari da lanean:

Eguna argitzetik
 Illundu artean
 Guraize labanakiñ
 Kale kantoyean.

Adio Donostia,
 Aski da jendeak,
 Despeditzen zaituzte
 Orañ langilleak:
 Esker onez beterik
 Gizon ta andreak
 Oroituko gerade
 Joan arren urteak.

JOSÉ VICENTE DE ECHEGARAY.

AL RIO AVENDAÑO.

ODA.

Imágen fiel de nuestra humana vida,
 Arroyo cristalino,
 Con existencia huida
 Obligado resbalas el camino
 Que conduce á la eterna despedida.

Tal el hombre se arrastra y se derrumba
 Por un mar proceloso,
 Y es fuerza que sucumba
 Al mágico resorte misterioso
 Que á caminar precisa hácia la tumba.

Al nacer, Avendaño, de una fuente,
 Con púdico decoro
 Juega el aura inocente